



Durangoko XXVI Liburu eta Disko Azoka

dak beti, 'Egunero hasten delako' irakurri ondoren «Kontxo! Azke-nean ere, literaturarengatik beragatik idazten duen idazle bat!» pentsatu bait nuen neure artean.

**SAIZARBITORIA.**— Literaturak funtzio asko ditu, eta horien artean funtzio soziala dago. Hasiera batean, geure burua eta geure herria normalizatzeko idazten genuen. Horretarako zenbait produktu sozialen beharra zegoen: antzerkia, literatura... Literaturazaleok literatura normal bat egin nahi genuen, produktu normal bat, ez euskarari laguntzeko, mundu guztian literatura egiten zela ikusirik, Euskal Herrian ere literatura egin behar zela pentsatzen genuelako baizik. Nik ez dut neure burua inoiz literatizat jo. Eta gaur egun, nire produktu sozialek ez dute garai batean zuten interesik, Euskal Herrian bai bait dago jende gehiago produzitzio hori egiteko. Beraz, gaur egun ez dakit merezi duen horregatik bakarrik idaztea. Baina garai hartan bai, hiru trakets erdi analfabeto besterik ez bait zegoen. Orduan, kristoren askatasunarekin eta kristoren inozentziarekin idatz nezakeen.

**GARZIA.**— Baina 'Ene Jesus!' ge-roagokoa duk, ezta?

**SAIZARBITORIA.**— Bai. Nik uste dut hor beste gogo bat dagoela.


**GARZIA.**— Literaturaren inguruan oso ezkor ikusten haut, Ramon, azken aldi hauetan. Ez idaztea kostatu egiten zailakoa bakarrik, helburuaren inguruan ere zalantzak ditualako baizik.

**SAIZARBITORIA.**— Philippe Soler, 'Tel Quel'-ekoek eta abarrek oso prestigio handia zuten, handiegia hain irakurle gutxi izateko. Eta nolabait ere buelta eman zaio horri orain. Batetik, erdi mailako klasearen igoeraren eraginez, subluteraturaren prestigioa handitu egin da —gaur egun ez da subluteraturatzat jotzen—, eta bestetik lehen subluteratura deitzen zen literatura horren kalitatea ere asko hobetu da —nouveau romanetik eta abarretatik hartutako teknikei esker neurri batean—. Gainera, kulturaren definizioa antropologizatu egin da, definizio zabalagoak onartzen dira orain: gastronomia eta futbola ere kulturatzat jotzen dira. Literaturazaleentzat egindakoa, ia-ia subluteratura bihurtzen ari dela esan daiteke gaur egun. Edozein kritikatan barre egiten zaie horrelako lanei. Horregatik, orain are zailagoa da norberaren produktuen merkatua jartzea, batez ere, neure kasuan bezala, norbera bere produktuekin oso ziur ez dagoenean. Frustrantea gertatu bait daiteke. Gaur egun Euskal Liburu Azokan produktu *maldito* bat jarri eta niri irakurle gutxi izatea ez zaidala inporta esaten hastea...

**HZ: ABAITUA.**— Dena dela, hik oraingo hau aurrekoaren buelta dela aipatu duan bezala, oraingo honen buelta ere etorriko dela uste diat nik.


**SAIZARBITORIA.**— Nik nahiago hala balitz.

**ITURRALDE.**— Nik uste dut aurretik literaturazaleasuna bizio baten modukoa izango dela, afizio partikular eta bitxia. Iritziak jasotzean, neurtu egin behar da norengandik datozen eta ikusi egin behar da iritzia eman duena noraino sartuta dagoen bere literaturazaleasunean.



CARLOS VILLAGRAN

● Ramon Saizarbitoria. «Euskal nobela modernoaren sortzailea» izendatu dute kritikoek. Aspaldian ez du, hala ere, nobela berririk argitaratu.



CARLOS VILLAGRAN

● Joxemari Iturralde. Pott Bandako kide izan zen. 'Izua hemen' izeneko bere nobelaren berrargitalpena aurki daiteke egunotan Durangon.

«Batetik, subluteraturaren prestigioa handitu egin da, eta bestetik subluteratura horren kalitatea ere asko hobetu da».

**RAMON SAIZARBITORIA**

Pausoz pauso, aurrera egiten bait da horretan. Hitzak esatea oso erraza da, baina ezin zaio kasu berdina egin jende guztiak esaten duenari ere. Guk badakigu Claude Simon gozatzeta, edo Miles Davis gozatzeta, ez da egun batean eseri eta irakurri edo entzuteko kontua. Hori ibilbide bat da, urte askotakoa, bizitza osokoa beharbada.

**SAIZARBITORIA.**— Modernitatean espontaneitatea da nagusi. Lana ematen duena, eta norberak ulertzen

«Nik uste dut aurretik literaturazaleasuna bizio baten modukoa izango dela, afizio partikular eta bitxia».

**JOXEMARI ITURRALDE**

# sendoa

## argitaldaria

### LIBURU BALIAGARRIAK

● **BAILARAK (6 ale)**

Euskadi bere ibarretan barrena.

● **EUSKADI PUEBLO Y NACIÓN (7 ale)**

Euskal Herriaren Historia Modernoa ezagutu ezazu.

● **GIZONAK (6 ale)**

Azken 500 urteotako pertsonaia euskaldunen biografia ezagutu ezazu.

● **AUSPOAREN SAIL NAGUSIA (10 ale)**

OBRA BERRIA, Aita Zabalen Zuzendaritzapean 30 urtetako ikerketaren ondorioa. TXIRRI, PELLO ERROTA, OTANIO, BASARRI, LASARTE ta karlistadako bertsoak, baita ere bertsolaritzaren Histori Orokorra.



OIARTZUN • UGALDETXO AUZOA Z/G  
TEL: 493551-52-53 • FAXA: 493548



### Sail Beltza

- |                                 |                   |
|---------------------------------|-------------------|
| 1. ZALDIAK AKATZEN DITUGU BA... | Horace McCoy      |
| 2. GALBIDEA                     | James M. Cain     |
| 3. IHESA                        | Jim Thompson      |
| 4. IMABELLEREN AMODIOZ          | Chester Himes     |
| 5. KEZ EGINDAKO ERRETRATUA      | Bill S. Ballinger |
| 6. EZ ADIORIK                   | Raymond Chandler  |

